

HEOko azterketa eredia – Euskara B2 – Idazmena

1. ARIKETA: KOPRODUKZIOA

100-120 hitz

Aurreko astean Natur Zientzietako irakasleak prestatutako kanpo jardueran parte hartu zuten: Zumaiako *flyschak* ezagutzera joan zineten. Bisitaldiak alderdi teorikoaz gain, praktikoa ere izan zuten, hala nola, arroka haien artean pilatuta zegoen zaborraren bilketa egin zuten.

Bukatzeko, galdera bat helarazi zizuen bisitaldiko begiraleak, ikasgelan zuen artean lantzekoa: **zer egin zabor harekin?**

Egun oparoa izan zen eta etxera iritsi orduko, oraindik liluratuta, zure lagun minari **e-posta** bat idaztea pentsatu zuten, haren proposamenak ere jaso asmoz. Bertan azaldu:

- Irteeraren nondik norakoak kontatu
- Zer sentitu zuten inguru magiko hartan. Arrazoitu
- Zure proposamenen berri eman lagunari, naturaren mesedetan.

2. ARIKETA: PRODUKZIOA

180-200 hitz

Gazte batzuk zuen eskolako ingurura hurbiltzen dira arratsaldero. Hasiera-hasieratik konturatu zineten zertara etortzen diren, baina frogarik gabe ezin duzue deus egin. Egia da inor ez dutela behartzen haiekin *trapitxeatzera*, baina egoera zure ustez kezkatzeko modukoa da.

Auzoko aldizkarian zure **iritzi-artikulua** idaztea erabaki duzu. Bertan azaldu:

- Nola baloratzen duzun sortu den egoera.
- Nola eragiten duen talde horrek eskolako elkarbizitzan.
- Zein den, zure iritziz, kasu horrek eskatzen duen konponbidea.